

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARTZINIEGAKO UDALA

#### Behin betiko onespena ematea zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik kobratu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza aldatzeari

Udal honek, 2024ko urriaren 24ko ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik kobratu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza aldatzeari.

Iragarkia 2024ko urriaren 30eko ALHAOn, 124. zenbakian, argitaratu zen, eta jendaurrean egon bitartean ez denez erreklamaziorik aurkeztu, behin betiko onetsi da, eta honela geratu da idatzita:

LEHENENGOA. Baliogabetzea zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik kobratu beharreko tasak arautzen dituen ordenantzaren IX. eranskineko A) Igerilekuak epigrafea. Ordenantza hori 2023ko abenduaren 22an (ALHAO 148. zk.) onetsi zen behin betiko.

BIGARRENA. Zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik kobratu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza honela geratzen da idatzita:

#### “ZERBITZU PUBLIKOAK EMATEAGATIK ETA ADMINISTRAZIO JARDUERAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

##### I. XEDAPEN OROKORRAK

###### 1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauak jasotakoarekin bat etorriz, udal honek eranskinean jasotzen diren zerbitzu publikoak emateagatik eta administrazio jarduerak egiteagatik kobratu beharreko tasa ezarri eta eskatzen du, ordenantza honen arabera, zeinaren zati baitira.

###### 2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatzen da.

##### II. ZERGA EGITATEA

###### 3. artikulua

Zerga egitatea da udalak benetan zerbitzua ematea edo jarduera egitea, bai eskatu zaiolako, bai gizabanakoek egindako ekintzek eta egin gabe utzitakoek zeharka eragin dutelako.

##### III. SUBJEKTU PASIBOA

###### 4. artikulua

1. Subjektu pasiboak edo zergadunak dira pertsona fisiko zein juridikoak eta Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 35. artikuluko 3. apartatuan aipatzen dituen erakundeak, baldin eta zerbitzuak edo jarduerak eskatzen badituzte eta horien onuraz edo eraginaz gozatzen badute.

## 2. Zergadunaren ordezekoak izango dira:

a) Zerbitzuek edo jarduerak etxebizitzan edo lokalen erabiltzaileei onura edo eragina ekartzen badiete, horientatik ordaindu beharreko tasetan, ondasun higiezin horien jabeak. Horiek, hala badagokio, dagozkien onuradunei ordainarazi ahal izango dizkiete kuotak.

b) Arriskua aseguratzen duten entitate edo sozietateak, zerbitzu hauen tasetan: suteen prebentzioa eta itzaltzea; aurri prebentzioa, eraikuntza eta eraisketak; salbamenduak eta, oro har, pertsona eta ondasunak babestea eta zerbitzua mantentzea.

c) Hirigintza lizentzien tasetan, hau da, lurrari eta hirigintza antolamenduari buruzko arautegian xedatutakoetan, eraikitzaileak eta obren kontratistak.

## 5. artikulua

Hauek ordaindu behar dituzte tasak:

a) Egindako zerbitzuak edo jarduerak partikularrek eskatzen badituzte, eskatu dituztenek.

b) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek eskatzen ez badituzte baina haiek egindako edo ez egindako zerbaitengatik egin behar izan badira, egindakoa edo ez egindakoa egotz dakiekeen pertsonak.

## 6. artikulua

Subjektu pasiboarekin batera, ordenantza honetatik eratorritako zerga zorrak ordaindu beharko dituzte tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak.

## IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

### 7. artikulua

Salbuespenak eta bestelako zerga onurak aplikatzekoak diren xedapen orokorren arabera emango dira.

## V. ZERGA OINARRIA

### 8. artikulua

Zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitza izango da zerga oinarria, eranskinean jasotako baldintzetan.

## VI. KUOTA

### 9. artikulua

Zerga kuota izango da, eranskinean ezartzen denaren arabera, zerga oinarriari tarifa bat aplikatzearen emaitza, ezarritako kopuru finko bat, edo bi prozedura horiek batera aplikatzearen emaitza.

## VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

### 10. artikulua

Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortuko da tasa.

## VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

### 11. artikulua

Udalak kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioa egingo du, eta likidatutako zenbatekoa dirutan ordaindu beharko da, ordainarazpen bakoitzerako eranskinean jasota dauden arauen arabera.

## 12. artikulua

Arabako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da ordenantza honek araututako tasen likidazio, bilketa eta ikuskatzearen gaineko guztian, bai eta zergen arau hausteen kalifikazioari eta dagozkien zehapenak zehaztearen gaineko guztian ere.

### IX. ERANSKINA

#### A) EPIGRAFEA: IGERILEKUAK.

	TARIFA (EUROTAN)
Helduak (25 urte dituztenak eta hortik gorakoak)	5,00
Gazteak (14 urte baino gehiago eta 25 urte baino gutxiago)	4,00
Gazteak (6 urte edo gehiago eta 14 urte baino gutxiago)	3,50
Familia abonamendua	40,00
25 urte dituztenentzako eta hortik gorakoentzako banakako abonamendua	30,00
25 urtetik beherakoentzako banakako abonamendua	20,00
Familia ugarientzako abonamendua	35,00

Familia abonamendua: Familia unitatetzat hartzen da senar-emazteek edo izatezko bikoteak eta abonamendua ordaintzeko garaian 18 urte baino gutxiago duten ondorengo ahai-deek osatzen dutena, baita 18 urte baino gutxiago duten ondorengo ahaideak dituzten guraso bakarreko familiak ere.

Familia ugarientzako abonamendua: Txartel hori erabili ahal izango dute, baldin eta ondoren zehazten diren errenta mailak gainditzen ez badituzte. Errenta da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 71. artikuluan aipatzen den pentsio konpentsatzaileengatik eta elikagaiengatik urteko pentsioengatik murrizketan murriztutako zerga oinarria. Hauek dira familia ugarientzako gehieneko errentak:

SEME-ALABA KOPURUA	DIRU SARRERA GARBIAK FAMILIA UNITATEKO
3 seme-alaba, 2 seme-alaba (desgaitasuna duen 1) edo 2 seme-alabako familia gurasobakarra	32.500,00 €
4 eta 5 seme-alaba	36.750,00 €
6 seme-alaba edo gehiago	49.000,00 €

Egiaztagiriak: adina NANaren bidez egiaztatu behar da, eta 14 urtetik beherakoek, NANik ez badute, familia liburuaren fotokopia bidez.

Familia unitatea familiaren errolda orriaren bidez egiaztatu behar da. Familia txartelean familiaren errolda orrian jasotako pertsonak sartuko dira.

Hobariak eta salbuespenak:

- 25 lagunetik gorako taldeek ehuneko 20ko deskontua izango dute sarrera bakoitzean.
- Bost urte edo gutxiago dituztenak doan sartuko dira.
- 65 urte edo gehiago dituztenak doan sartuko dira.

#### B) EPIGRAFEA: KIROLDEGI PABILOIA.

KONTZEPTUA	TARIFA
Kiroldegi pabiloia erreserbatzea (kantxa) Erabilera ordu edo frakzio bakoitzeko Prezioan ez da sartzen argiztapena erabiltzea, erabiltzailearen kontura izango baita	13,00 €

## C) EPIGRAFEA: FUTBOL ZELAIA.

KONTZEPTUA	TARIFA
Futbol zelaia erreserbatzea Erabilera ordu edo frakzio bakoitzeko	50,00 €

## D) EPIGRAFEA: TENIS KANTXA.

KONTZEPTUA	TARIFA
Tenis kantxa erreserbatzea Erabilera ordu edo frakzio bakoitzeko	3,75 €

## E) EPIGRAFEA: MUSEO ETNOGRAFIKOKO EKITALDI ARETOA.

KONTZEPTUA	TARIFA
Museoko ekitaldi aretoa erreserbatzea Erabilera ordu edo frakzio bakoitzeko	15,00 €

Ehuneko 100eko salbuespena ezartzen da udalerrirako interes berezia duten ekitaldietarako eta egoitza Artziniegan duten elkarreentzat.

## F) EPIGRAFEA: UDAL ESPAZIOETARA SARTZEKOTXARTELA IZAPIDETZEAGATIKO FIDANTZA (banakakoa edo taldekoa).

Jarduera amaitu ondoren, gehienez ere astebeteko epean itzuli behar da txartela. Bestela, ez da fidantza itzuliko, eta eskatzaileari sei hilabeteko zigorra ezarriko zaio, eta epe horretan ezingo du beste emakida baten onuradun izan.

KONTZEPTUA	TARIFA
Udal espazioetan sartzeko txartelaren fidantza	10,00 €

## G) EPIGRAFEA: ZABORRA BILTZEKO ZERBITZU PUBLIKOA EMATEA.

EPIGRAFEAK	2025EKO TARIFA (EUROTAN)
Egoitzak	398,10
Mekanika tailerrak, garajeak, landetxeak, gasolindegia	186,15
Ikastetxeak, aterpetxeak	317,50
Artziniegako etxebizitzak	142,42
Tabernak	186,41
Fabrikak	569,24
Saltegiak	186,14
Toki erakundeetako etxebizitzak % 90	128,18
Hotelak, jatetxeak, kasinoak	315,99
Bulegoak, txokoak, elizak	176,27

DIRUBILKETA ALDIA: sei hilean behin (ekaina eta abendua).

## H) EPIGRAFEA: HIRIGINTZATXOSTENAK.

Udal zerbitzu teknikoek hirigintza txostenak egitea, okupazio, eraikigarritasun bolumen, lurzati lerrokadura, eraikinetatik mugetarako tarte eta abarri buruzkoak, eta, azken finean, udal plangintzako hirigintza zehaztapenak interpretatzen dituen zernahi hirigintza txosten egitea partikularrek eskatuta.

Tarifa: 25,00 euro.

X. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, eranskinarekin batera, 2025eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da”

Artziniega, 2024ko abenduaren 16a

*Alkatea*

*JOSEBA VIVANCO RETES*